



- Gai horretaz mintzat**zeko orduan**, garrantzitsua da zuzentasuna.
- Forma estetikoa aztert**zeko orduan**, batik bat zehaztasuna izan dugu gidari.
- Kostu horiek zehaz**teko orduan**, hainbat prozedura erabil daitezke.





Eta ez...



- *Gai horretaz mintzatzerako orduan, garrantzitsua da zuzentasuna.
- *Forma estetikoa aztertzerako orduan, batik bat zehaztasuna izan dugu gidari.
- *Kostu horiek zehazterako orduan, hainbat prozedura erabil daitezke.





- Animalien sailkapena egiteko **garai**an, genetikak agintzen du gaur egun.
- *Animalien sailkapena egite**terako garai**an, genetikak agintzen du gaur egun.



Egitura desegokiak dira:

- -t(z)erako orduan
- -t(z)erako garaian

Haien orde, honako hauek erabili behar dira:

- -t(z)eko orduan / -t(z)ean edo -t(z)erakoan¹
- -t(z)eko garaian / -t(z)ean edo -t(z)erakoan¹

(1) Testuinguruaren arabera -t(z)ean edo -t(z)erakoan.

-T(Z)ERAKOren erabilera zuzenak:

-t(z)erakoan:

- Beraz, estrategia martxan jartzerakoan, beste ikuspegi batzuk hartu behar dira kontuan.

[EHULKUren aholkua: [sartzerakoan](#), [sartzean](#), [sartutakoan](#) (2010-05-26)].

-t(z)erako (mendebaldeko erabilera, jadanik gertatua dena adierazteko):

- Dantza-saioa bukatzerako, desagertua zen Pennyren haserrea...
 - Dantza-saioa bukatu zene(rako), desagertua zen Pennyren haserrea...